



DANON ARTEAN ZAINTZA EKOSISTEMA BAT SORTZEN

Talde eragilearen 4. saioa

Usurbil, 2021-10-18



SAIOAREN EGITURA

Saioari hasiera emateko, aurreko saioan egindako ekarpenak berrikusi dira. Hona hemen, laburbilduta:

- Pertsona erdigunean
- Pertsonak etxean nahi badu, etxeko zerbitzuak ezinbestekoak. Etxea irisgarria bakarrik ez pertsonalizatua, pertsonaren beharrak kontuan izango dituena. Etxe mota ezberdinak.
- Pertsonaren ondoan zaintzailea. Zaintzaileetan bereizketa bat egiten da: zaintzaile "familiarra" (familiarra ulertuta sare afektibotik edo konfidantzazko pertsonak) eta profesionala. Genero ikuspegia. Lan baldintzak. Formakuntza.
- Familiaren papera etorkizunean zein izango den zalantza
- Pertsonarengandik oso gertu lagunak
- Gizarte eta osasun zerbitzuen arteko koordinazioa. Baita hauen koordinazioa boluntariotzarekin.
- Boluntariotza, bizilagunak eta elkarrekin.
- Garraioa, aire libreko guneak, ekipamenduak.
- Politika publikoak (etxearen inguruko arautegiak, plan urbanistikoa, garraioa...)
- Merkataritza, ostalaritza, farmazia: antena bezala paper sozial garrantzitsua.
- Programak
- Boluntariotzak ez ditu sistemaren hutsuneak bete behar. Pertsonaren partehartzea ahalbidetzeko ikusten da gehiago. Erakundeetatik bultzatu ere egin beharra, txikitatik boluntariotzan hezte adibidez.
- Zaintza eredu pertsonalizatu eta malgua.

Ondoren, ekosistema baten eraikuntzan definitutako elementu bakoitzaren AMIA azterketa egin da, honako txantilo honen bidez:

		PERTSONA			
		ALDE POSITIBOAK	HOBETZEKO ALDEAK		
		INDARGUNEAK	AHULEZIAK		
B A R R U K O A K				B A R R U K O A K	
K A N P O K O A K		AUKERAK	MEHATSUAK	K A N P O K O A K	

AMIA analisia elementu hauen gainean egin da:



Talde bakoitzean lortutako informazioa ondorengo faseetan erabiliko da, arlo bakoitza aztertu eta hausnartzeko eta, ondoren, ekintzak abian jartzeko.

EBALUAKETA

Saioaren amaieran ebaluaketa horria bete dute 11 partaideek. Hona hemen emaitzak:

AURREIKUSPEN, HELBURU ETA PARTE-HARTZEAREN INGURUAN

	Bai	Ez, zergatik	EE*
1. Bete ditu bilerak zure aurreikuspenak?	11		
2. Lortu dira aurreikusitako helburuak?	11		
3. Parte-hartzeko aukera eman zaidala uste dut	11		

*EE: ez du erantzun

ANTOLAMENDUA

	Egokia	Hobetu daiteke	Zertan hobetu daiteke?
Iraupena	10	1	Saioa motz geratu da (3 iritzi)
Lekua	11		
Ordutegia	11		
Antolamendua oro har	10	1	

IRADOKIZUNAK

Ez dira egin

